



**INTZA_ALKAIN
EDURNE_AZKARATE
MIKEL_IBARGUREN**

*Formol
Laborategiaren
sorkuntza,
Metrokoadrokaren
laguntzaz*

**WORK
IN
PROGRESS**

**FOR
MOL**
LABORATEGIA



Gu,
mantxarik gabeak,
izpirituz bezain gorputzez otzanak,
ezertxo egin aurretik
penitentzia egin ohi dugunak,
zentzugabe zale,
etxe eta fortuna dezentearen jabeak,
gu,
bidean galduak,
bide zuzenaren faltan okerbidea hartu ez
genuenak,
jaiotzatik zirkulutan ibiliak,
aurretik datorkigun nekeak nekatuak.

ITU Banda

SINOPSIS

“Mikroskopio batekin aztertzen naute,
ni naiz ikertzaileen xedea.
Ni naiz objektua.”

Bat batean, Motxiladunak eta Kaskodunak foku guztia bereganatzen dute, ustez inork ikusten ez dituen momentu horretan.

ANTZEZLANA

Abiapuntua:

Gure belaunaldiaren ezaugarriak eta haien artean sortzen diren kontraesanak eszenikoki ikertu nahi izatetik sortu da MAKETA. Belaunaldi bakoitzak bere bereizgarriak ditu eta gureari paradigma aldaketa bortitza tokatu zaiolakoan, gure buruak ezin kokatu, millennial izate horretan noraezean gabiltza. Bizi kalitate, hezkuntza eta baldintza onenak izan ditugunok gure bizitza gobernatu ezean gabiltzalako irudia ematen dugu. Hala da, edo kanpoko begirada baten epaia da gure hautuak ulertzen ez dituen? Sorkuntza prozesu hau abian jartzeko orduan honako hau izan da planteatu dugun galdera: zer daukagu esateko?

Bestetik, euskal kulturarekiko daukagun erantzukizuna praktikara eraman nahi eta gure alea nola jarriko dugun ikertzeko motibaziotik jaio da MAKETA. Praktika mahai gainera ekartzen hasita, gehiegizko estimuluek eraginda noraezean edo paralisian bizi garenok egiten eta ekiten hasi nahi dugu, oinarritik eraikitzen. Horregatik, hartu ditugu estrategikoak diren erabakiak: batetik, parekidetasuna eta sexu, genero, jatorri... aniztasuna errespetatu eta bermatzeko desioarekin abiatzen da MAKETA, irudi garbiketarik at, proiektuaren oinarrian ikuspuntu feminista txertatuz, bai antzezlanean bai prozesuan zehar-lerro bihurtuko dena; bestetik, gazte euskaldun sortzaileen arteko saretzea gauzatu nahi dugu; sinisten dugulako ikuspuntu eta praktika ezberdinen arteko harremanetatik haziko direla berritzaileak eta berezkoak izango diren komunikatzeko era berriak.

Lehen hausnarketa artistikoak:

Antzezlan honekin geure izatea landu nahi genuke. Ditugun kezka, min eta beldurrak era zintzoan landu nahi ditugu publikoarekin, egia ikusi dezan. Izaki hauskorrek izateak eramango gaitu leku ez erosoetara, eta ikusleekin egin nahi dugu leku horietarako bidea. Zer esango dugu, zerbait esateko esan badigute?

Hortik hasiko da guztia.

Industrialak, distopikoa, erritualak, kitsche, subersibo eta garrantza den artefaktu bat sortzea izan da asmoa. Gaur egungo gizarte eta gizakiaren ezlekuak ezagutu eta habitatzeko aukera emango digutenak.

MAKETA komedia eta dramaren artean kokatuko genuke, bietako batean ere ez finkatzea delako xedea, nahiz eta bai bataren eta bestearen baliabideak erabili.

Aurkezpen motako estrategia estetiko estilistikoak ikertu nahi izan ditugu, zuzenak, gordinak eta zintzoak, asko pertsonaiaren eraketaren molde zaharretatik kanpo eta kode performatiboetatik gertukoak. Fikzioaren baitan, baliabide ezberdinak uzartzen lagunduko digun lengoia bat bilatzea izan da gure erronketako bat; bakarriketarako, ikusleekiko erreferentzialtasuna duten eszenak, aktoreen artekoak, gorputz adierazpena, etab. barnebildu ahalko dituen lengoia bat alegia.

Honetarako erreferente teoriko bezala H. T. Lehmannek antzerki postdramatikoari buruz azaltzen dituen errekurso estilistikoak baliatu nahi izan ditugu, batez ere testuaren arloan. Elementuen arteko hierarkia eza baliatu nahi izan dugu, ikusleen garunean bakarrik ez, erraiei ere dei egiteko.

Sorkuntza prozesua:

Laborategi moduan jardun gara lanean. Sorkuntza mota horizontala da planteatu duguna, kolektiboa. Horretarako erabili dugun gaitegiarekin loturiko inprobisazioak eta barne eta kanpo ekimenak izan dira piezaren materiala sortzeko erabili ditugun baliabideak.

Dramaturgiaren aldetik, intuitibo-kontraintuitibo idazketa ariketak erabili ditugu, kanpolararen aurretik, bitartean eta ostean, eta sortutako testuen erabilpen alternatiboak aztertu ditugu, ikusleengana iristeko bideak bilatuz. Testuaren erabilpena, musika dramaturgiarekin lotu da, hau, kolore, argi eta testurekin eta azken hauek jantzitegi eta elementu eszenografikoekin.

Musikari dagokionez, XXI. mendera egindako trantsizioko herri kantutegia osatzen duten abesti ezagunen erabilerara jo dugu, geure antzezlanaren giro atmosferikoa sortze aldera.

Denbora lerroan, azalak balira bezala landuko ditugu aldaketak, kodeekin jolasean. Aipatutako honek antzezlanaren erreferentzialitatea eta sinbologia ehuntzen lagunduko digu, piezaren osotasuna eta poetika bilatuz.

FORMOL LABORATEGIA

Formol Laborategia Intza Alkain, Edurne Azkarate eta Mikel Iburgurenek osatzen dugun antzerki taldea da. Euskal antzerkian gazteok daukagun tokia esploratzeko nahietik eta bide berrietan sakontzeko motibaziotik jaio da. Geure belaunaldiaren ahotsak, ardurak, iruditeria eta kontatzeko modua deskubritzea eta beste gazte sortzaile batzuekin saretzea dugu helburu.

Maketa, aurkezten dugun lehen pieza, Gazte Sortzaileak bekari esker sortu da.